

Erf.: Kontratazinoan klausula sozialak txertatzeko instrukzinoak
Tx. zk.: 16/

Karmele Muñoa Arrigain andreak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Planteatutako gaia

Bermeoko Udala eta bere menpeko erakundeen kontratazinoan klausula sozialak txertatzeko instrukzinoak onartzea.

Nork eskatu dauen txostena

Ofizioz.

Argudio juridikoak

a) Aurrekariak

Bakarra: 2016eko apirilaren 14ko Osoko Bilkurean, sindikatuek aurkeztutako mozinoetan proposatutakoak landu eta, hile biko epean, kontratazinoetarako baldintza agirietan txertatuko diran klausula sozialak onartzeko konpromisoa hartzea erabagi zan.

b) Oinarri juridikoak

Lehenengoa: Instrukzino horreek prestatzeko 2016ko apirilaren 7an onartutako Zenbait Klausula Sozial Kontratazino Publikoan Sartzeko 3/2016 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratua onartzen dauan 3/2011 EDL, Kontratazino Errekurtsoen Administrazio Organoaren ebazpenak eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak kontratazinoak klausula sozialak txertatzearen inguruan onartutako 4/2013 Foru Araua dala eta, Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Herri Administrazioarekiko Auzien Salak emondako 603/2014 Epaia hartu dira kontutan.

Bigarrena: aitatutako 3/2016 Legean xedatzen da indarraldia legea argitaratu eta hile bi igaro ondoren hasiko dala eta euskal sektore publikoko entitateek kontratazino prozeduretan lege horretako aurreikuspenak txertatzeko beharrezko neurriak hartuko dabezala.

Beraz, betebeharrak hori bete beharra dago, eta baita be 2016eko apirilaren 14ko Osoko Bilkurean hartutako konpromisoa eta, horretarako, Bermeoko Udala eta bere menpeko erakundeen kontratazioan klausula sozialak txertatzeko egokiak diran instrukzioak onartu beharra dagoz.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2016ko maiatzaren 28an.

Karmele Muñoa Arrigain
Behin-behineko Idazkaria